

## Presoentzat dirua

*Alderdi*, 266. zk., 1971-08.

Berreun bat euskotar ba dagoz kartzeletan.

Oietako batzuk ikasleak badira ere, besteak langilleak dira eta etxeratzen zuten asterokoa sendi askotan palta da. Bestalde, senide baten utsunea sentitzen duten famili oietan ba da bearraldi berri baten zama: espetxeetara joateko biaje luzeak ordaindu bearra, eta gurasoak esku-utsik joango ez badira bear dituzten gauzak erosi bearra.

Euzkadiren alde jokatu duten mutil oiek dirua kostatzen direla ulertzea ez da zailla.

Ontaz kezkatu, gure erriko jende leial pranko asia da dirua biltzen. Ixilpean egin bera den lan onek ba ditu, noski, arrixku txiki batzuk, eta norbaitzuk galbidetxo onen bildurrak eta beste batzuk aitzeki onekin eta zurkeriz, eskatzen zaien laguntza ukatzen dute.

Ez dugu koldarkeri au bear ainbat karraxiratuko; baiña ala ere ba dago oraindik jokabide okerragoa: biltzen den diru ori nora eta zertarako dijoan galdezka asiak dira: "ez digu nora" bialtzen omen da-ta; presoak ez diren "zerbaiterako" ere zuzentzen omen da-ta.

Kezkak errez sortzen dira, eta askotan egoki-egoki datozenak ere ba dira. Au naikoa ez eta bere burua agerian garbitu naiean susmo ori zabaltzen alegintzen direnak ere sortu zaizkigu. Egia esan, kezkak guk ere baditugu, eta ez gaude lo, erne baizik; baiña gure ernetasun onek bestelako kezkak ere sor-arazten dizkigu: esames orren atzetik polizia bera badago?

Probak zaillak izaten dira olakotan, noski; bai batekoak eta baita bestekoak ere. Iñork bateren bat erakutsi al badu, erakutsi dezala.

Alderdia ezin da diru-jasotzen dabilten guzien jabe egin, noski. Bakoitzak jakingo du dirua nori eta nola ematen dion, baiña gogo duenak beti arkituko du aukera on bat, asko dagoz-eta. Eta hi kezken artean bat aukeratu bear badugu, poliziak sortutako asmoa dela esatea derizkiogu legezkoen.

Dirurik ez emateko bideak zurikatzen ari diren batzuk diotenez, biltzen den dirua asko, geiegi!, omen da! Egia ote?

Jarri zagan berreun mutil eta neska ditugula espetxean, eta bakoitzak illean bost milla peseta bear dituela. Asko al da? Janari eta jantziarako bear duten laguntza eta joan-etorriko biajeak, askotan luzeak, ordaintzeko eta maiz semeak etxean utzi duen irabasi-ezaren utsa betetzeko geiegi ote da? Ez digu au espetxean semea edo alaba edo anaia edo arreba duen batek esango!! Ala egin zagan batez-beste ori dela. Konturatzen al gera bost milla pesetako berreun gazteentzat illean *milloi bat* peseta bildu bear ditugula? Eta uste al duzu, zuk, irakurle, gure erran presoentzat eta illero milloi bat peseta biltzen denik?

Nondik nora, orduan, biltzen den apurra *diru asko, geiegi*, eta, gañera, "norabaitera" bialtzeko eta "beste serbaiterako" lain izan!??

Ez gaitezen frankismoaren atzaparretan txitoak bezala arrapatzen utzi. Batetik, esaten den orrek egia izateko kolore gutxi duelako, eta bestetik, gu zakabanatzeko frankismoa bera egiten ari den lanaren kolore nabarmena duelako.

Ez gaitezen geok "proba" gabe poliziaren betiko jokoari jarraitzen asi. Ixtorian zear askotan etorri zaizkigu kalteak emendik, geok bata-besteia salatzeke joko beltzean erortzetik.

**Laburki:**

Euskadi defenditzen erori diren presoak erriaren presoak dira.

Gure erriko presoak eta bere familiak laguntza bear dute.

Laguntza au erriak bakarrik eman lezaioke.

Eman genezaken laguntza au nai eta naiez ixilpean eginbearra dago, eta bakoitzak bidea aukera lezakenez, gure dirua biltzeko aukeratu duguna ziñezgarriago da polizia baiño.

*Onerako* den "probarik" ez badugu, *txarrerako* den "probarik" ere ez dugun bitartean al duguna *eman bear* dugu.

Ez gaitezen geok frankismoaren polizi-lana egiten jarri!